

Bidebieta

Bibebietako Kokazaleak

Abenduaren 26an Juantxo Koka lagunartea sortu zen ofizialki. Auzoko Zumardi tabernaren jabe Antton Seguesi otu zitzaion ideia. Helburua inguruko auzoetako Lehen Mailako pilotari bakarra txalotzea eta animatzea da.

Antton Seguesek, Zumardi tabernaren jabeak, peña edota lagunarte bat sortzeko gogoaz zuen aspaldi. Jose Antonio Zurutuza bere lagunarekin hitz egin eta hasiera-hasieratik futbolari baten aldeko lagunartea sortzea baztertu zuten, futbolariak han eta hemen baitituzte lagunartea. Zurutuza altzatarra da, Koka

bezala, eta pilotariaren aita ondo ezagutzen du. Altza-Bidebieta-Herrera inguru honetako Lehen Mailako pilotari

Lagunartearen sorreran hainbat pilotari izan ziren



Juantxo Koka, Alustiza, Taberna, Errasti Errandonea eta Unanue pilotariekin.

bakarra da Koka eta hortaz, ez zuten dudarik izan: Juantxo Koka Peña sortuko zuten. Presidente Jose Antonio Zurutuza izendatu zuten eta idazkari, berriz, Antton Segues.

Abenduaren 26ko festa

Juantxo Koka lagunartea abenduaren 26an sortu zen ofizialki. Egun hartan egundoko festa antolatu zuten Zumardi tabernan, hamaiketako eta guzti. Bertara altzatarren jarraitzaileak ezezik, lagunak eta punta puntako pilotariak ere gerturatu ziren. Besteak beste, Errandonea, Unanue, Alustiza, Taberna eta Errasti pilotariak hurbildu ziren tabernara.

Zumardi tabernan sartuta, ez dago zalantzarik bertakoak pilotazaleak eta Kokazaleak direla. Dagoeneko pilotariaren hiruzpalu argazki zintzilikatu dituzte eta horietako bat Go-



ñiri gailendu eta Bigarren Mailako txapelduna izan zeneko partidakoa da.

Lagunartea sortu zenetik bi hilabete eskas igaro dira eta bertako kideak Asegarceko pilotariaren garaipen garrantzitsu bat noiz iritsiko zain daude. Besteak beste, garaipena ospatzeko asmoa dutelako. Juantxo Kokak berak iragarri du taxuzko garaipena lortuz gero, Zumardi tabernara joango dela Alzako bere lagun kodrilarekin.

Txapel handia jantzi aurretik, ordea, partida asko jokatu beharko ditu Kokak. Horretarako, txaloak behintzat ez zaizkio faltako, Bidebietako lagunartekoak pilotalekuetara joan eta animatzeko prest baitaude.

Egun osoz zabalik (10:00etatik 23:00tara)

Jantetxea




Bokateria

Karta • Eguneroko menua • Bokatak

IGARA bidea, 16 behea DONOSTIA 2009

Tel.: 943 31 07 97 • 943 21 76 86



- Ikastetxe eta lantegientzako zerbitzu bereziak
- Era guztitako bidaiak, baita atzerrira ere
- Komuna eta literadun autobusak

AVTOCARES

VLI

Tel.: (943) 46 96 98
Tel.: (943) 46 82 77